

## AGINTARIAK ETA LANGILERIA

### Oposaketak eta lehiaketak

#### OSAKIDETZA-EUSKAL OSASUN ZERBITZUA

## 640

*66/2022 EBAZPENA, otsailaren 3koa, Osakidetza-Euskal osasun zerbitzuko Giza Baliabideen zuzendariarena, zeinaren bidez honako ebazpen honen hutsak zuzenduko diren: 41/2022 Ebazpena, urtarrilaren 21ekoa, Osakidetza-Euskal osasun zerbitzuko Giza Baliabideen zuzendariarena, zeinaren bidez Diruzaintza eta Finantza-egoeren Jarraipeneko Zerbitzuburu Korporatibo lanpostua izendapen aske bidez betetzeko deialdia egiten den, Zuzendaritza Nagusian.*

41/2022 Ebazpenaren bidez, urtarrilaren 21ekoa, Osakidetza-Euskal osasun zerbitzuko Giza Baliabideen zuzendariarena, Diruzaintza eta Finantza-Egoeren jarraipeneko zerbitzuburu korporatibo lanpostua izendapen aske bidez betetzeko deialdia onartu egin zen, Zuzendaritza Nagusian.

Parte hartzeko baldintzei buruzko lehenengo puntuak akats bat antzeman denez, zuzendu egiten da ondoren:

honela dion lekuan:

«a) Osakidetzako edozein zerbitzu-erakundetan estatutupekoa, funtzionarioa edo lan-kontratudun langile finkoa izatea eta plaza jabetzan edukitzea A1/A2 talde profesionalean.»

hau esan behar du:

«a) Osakidetzako edozein zerbitzu-erakundetan edota Euskadiko Administrazio Orokorrean: estatutupekoa, funtzionarioa edo lan-kontratudun langile finkoa izatea eta plaza jabetzan edukitzea A1/A2 talde profesionalean.»

Era berean, eskabideak aurkezteko 15 egun baliaduneko epea irekiko da berriro, Ebazpen hau Euskal Herriko Agintaritzaren Aldizkarian argitaratu eta hurrengo egunetik aurrera.

Ebazpen honen aurka gora jotzeko errekurtsioa aurkeztu ahal izango zaio Osakidetzako zuzendari nagusiarri. Horretarako, hilabeteko epea izango da, Ebazpena EHAAan argitaratu eta hurrengo egunetik aurrera.

Vitoria-Gasteiz, 2022ko otsailaren 3a.

Osakidetza-Euskal osasun zerbitzuko Giza Baliabideen zuzendaria,  
LUISA LARRAURI EREÑOZAGA.